

Zientzi Fakultateko lehen promozioak

25 urte

Berezko garrantzirik ez izan arren, denbora kontuak aipatzerakoan zenbaki esanguratsuen artean kokatu ohi da 25.a, gehienontzat *zerbait diren* zenbaki horien artean. Ospakizunekin lotu izan da, aro baten bukaerarekin eta berri baten hasierarekin, zilarrekin... ezaugarri horiek guztiak jantzita iritsi zaigu Leioako Zientzi Fakultateko lehen promozioaren 25. urteurrena. Iraganari, orainari eta etorkizunari begira jartzeko aukera paregabea eskaintzen digu zilarrezko ospakizun honek. Denbora horrek bere baitan gordetzen duena neurri batean azaltzen laguntzeko, sei lagun, urte batzuetan Zientzi Fakultatearen errealitatea ezagutu dutenak edo oraindik ere ikasgelen egunerokotasun horretan bizi direnak: Joseba Madariaga, Jaxinto Iturbe, Miren Onaindia, Juan Ignacio Perez Iglesias, Manuel Tello eta Jose Ramon Etxebarria.



B. Kortabarría

Beñardo Kortabarría

Bi lagun bildu genituen Leioako Zientzi Fakultatearen historiaz hitz egiteko, bata Dekanotzan urte mordo egondakoa, Joseba Madariaga; bestea, orain 25 urte irten zen lehen promozio hartako kidea, Jaxinto Iturbe. Biek ondo baino hobeto ezagutzen dute Leioako Zientzi Fakultatearen azken urteotako ibilbidea.



B. Kortabarría

25 urte Zenbat aldatzen diren gauzak

Leioan dago orain Zientzi Fakultatearen eraikuntza, baina ez da sortu zenetik hor egon. Duela 30 urte, Euskal Herriko Unibertsitatea eratu zenean, zientzia-ikasketak aukeratu zituzten gazteen pausoak beste alde batera bideratzen ziren. Izan ere, Zientzi Fakultatearen behin-behineko eraikina Bilbon jarri zen, Deustuko Unibertsitatearen aurrean zegoen Nautika Eskolan. Leioara aldatu aurretik beste egoitza bat ere izan zuen Zientzi Fakultateak, Nautika Eskolako eraikin zaharraren ondoan egindako pabilloi bat. Jaxintok berak bigarren eta hirugarren ikasturteak han egin zituen. Lau garren ikasturterako joan ziren lehen promozio hartako ikasleak

Leioara, baina ez Zientzi Fakultatearen gaurko eraikinera. Oraindik egin gabe zegoen eta Medikuntza Fakultatean sartu zituzten. Ikasketen azken urtea bai, hura egoitza berrian igaro zuen lehen promozioak. Beraz, bost ikasturtetan lau egoitza desberdin izan zituen Leioako Zientzi Fakultateatik irten zen lehen lizentziatu-taldeak. "Orduan, Leioara iriste hutsa ere abentura izaten zen. Egoteagatik ez zegoen ganorazko errepiderik, jende gehiena 'auto-stop'-ean ibiltzen zen... autobusik? bai, bazeuden, baina oso gutxi eta hona jende asko etortzen ginenez zaila izaten zen tokia harrapatzea". Ikusten denez, Jaxintok ondo go-goan dauzka hasierako urte haiek.

"Hasieran 160 lagun ginen gutxi gorabehera, lau taldetan banatuta, baina denak ez ginen berriak. Izan ere, batzuk batxilergoa bukatuta etorri ginen, baina beste batzuk kimika ikasten arituak ziren, 1968a baino lehenago Jesuitek Deustun kimika irakasten zuten eta. Ikasle haiek azterketak egitera Zaragozara joaten ziren. Unibertsitate publiko sortu eta gero, Jesuiten kimika-ikasketak desagertu egin ziren. Deustun kimika ikasten zebiltzanak unibertsitate publikoan sartu ziren, gure Fakultatean. Aipatutako Deustuko kimika-ikaske- tez aparte, sasoi hartan Bilbon ikas- keta teknikoak egiteko toki bakarra Injineru eta Tekniko eskola zen. Or- dura arte gauza zientifiko-teknikoak



ERREPORTAJEA

egin nahi zituena, edo kanpora joango zen edo injineru izango zen, eta horregatik zuzendu zen handik beste multzo bat kimika edo fisika egitera unibertsitate publikora”.

Euskara eta zientzia eztabaida/harremana, beste gauza asko bezala, hasiera-hasieratik sortu zen unibertsitate eratu berri hartan. “Euskara ikasteko klaseak antolatu ziren lehen urtean. Bilboko Euskarazaleak elkarteak bidalita irakasle bat etortzen zen Zientzi eta Medikuntza Fakultateko euskara irakastera, talde bi antolatu ziren. Horrelako gauza bat egiteak sasoi har-

sunek... ez omen zieten gauzak erraztu. “Hasi ginenotatik, titulazio guztiak kontuan hartuta, 50era ez ginen iritsiko ikasketak bukatzera, lautik batek edo. Fakultate zorrotza? beno, segun eta nori galdetzen zaion. Aprobaten duenari ez zaio horrela irudituko, baina gainerakoei seguru baietz”.

Denbora ez denez alperrik pasatzen, bistan dago Leioatik irten zen lehen lizentziatu-talde hark ikasketak burutu zuenetik gaur egunera aldaketa handiak eman direla arlo askotan, Leioako Zientzi Fakultatean barne. “Aldea izu-

Burgosko prozesua... dena islatzen zen Fakultatean, eta gaur egun denok ezagutzen ditugun arazoak daude eta horiek ere islatzen dira.

Arlo akademikoari erreparatu gero, beharbada, gure sasoiaren aurreko prestakuntza hobea zela esan beharko litzateke, hau da, gaur egun batxilergotik datozenek baino oinarri hobea genuela. Baina egoera hori ez da bakarrik Zientzi Fakultatekoa, askoz ere orokorragoa da.

Irakasleen eta ikasleen arteko harremanei dagokienez, lehen promozio kidea naizen aldetik esan dezaket irakasle gehienak ere oso gazteak zirela, tesia egin berriak, irakaskuntzan sartu berriak... orduan nahikoa hurbil geneuzkan irakasleak, eta alde horretatik ez zegoen adinaren eta “errespetua”ren saltorik, eta alde horretatik esango nuke harreman, ez estuak, baina bai hurbilak geneuzkala. Gaur egun, irakasleekin oro har nahikoa harreman onak daude, irakasleak nahikoa hurbil daude ikasleen arazoengandik. Irakasleen aldetik badago ikasleekin eztabaidatzeko, ikasteko eta tutoriak egiteko desioa; alde horretatik ondo. Beste alde batetik, masifikazio-arazoa dago, ikasle larregi irakasle bakoitzeko eta atentzioa ez da ikasleak nahi duen adinakoa, eta hor badago aldea”.

Leioako Zientzi Fakultatea izanik ikerketaz ere, nahi eta nahiez, bi hitz egin behar, lehen promozio hura atera zenetik gauzak asko aldatu baitira mende-laurdenean. “Ikerkuntza egiten den beste herrialde batzuekin konparatu gero, esan beharko litzateke atzetik goazela, txirotasunean bizi garela. Aldiz, iraganean izan dugunarekin egingo balitz konparaketa, argi eta garbi esan beharra dago aurreratu egin dugula. Duda barik, asko aurreratu dugu, batez ere eskaini diogun lanarengatik. Beti esan ohi dugu fruitua ateratzeko hemen lan bikoitza egin behar izan dugula, ikerketa egiten eta ikerkuntza egiteko bitartekoak lortzen, egitura eta pertsonal faltagatik noski. Hemengo irakasleek, hezkuntza-lanaz gain, teknikari-eta administrazio-lanak ere egin behar izaten dute. Lan horiek guztiak egin-



B. Kortabarría

Bistan dago Leioatik irten zen lehen lizentziatu-talde hark ikasketak burutu zuenetik gaur egunera aldaketa handiak eman direla arlo askotan, Leioako Zientzi Fakultatean ere bai.

tan bazuen meritua, baina handik pare bat urtera itzali egin zen, ordu-tegi arazoengatik. Gerora UEU izan da motorea, dozenaka liburu aterez. UEUekin hasi zen euskal testugintza unibertsitarioa, hasi, garatu eta segitu. UEUK bultzada handia eman dio Zientzi Fakultateari, baita hemengo irakasle askok UEUri ere”. Jende gutxiago izan arren, Jaxintoren ustez ez zituzten gauzak orain baino errazago izan, eraikinez eraikin ibili beharrak, laborategiak moldatzeko arazoak sortu izanak, Fakultatera bertara iristeko zailta-

garria da. Gu ere aldatu egin gara, zer esanik ez, datozen ikasleak desberdinak dira edo behintzat horrela ikusten ditugu; alegia, orduko gazte-riak ez du zerikusirik gaurkoarekin. Arduretako batzuk berdintsuak izango dituzte ordukoek eta gaurkoek, baina gizartea aldatu egin da, eta gizartearekin batera Fakultatea ere bai. Irakasleak aldatu egin dira, giroa aldatu egin da... orduan zegoen egonezina arrazoi batzuegatik zen eta gaur egun dagoena beste batzuegatik izango da, baina egonezina egon badago. 68 famatua,



da, gaur egunean ondo gaude, kontuan hartuta zein bitarteko izan ditugun. Oro har, Fakultateko ikerketa nahikoa ona dela esango nuke". Azpiegitura arazoak aipatu dituzte Josebak eta Jaxintok, azpiegitura lortzeko egin behar izan duten lana lerro hauekara ekarriz. Egoitza bera multzo horretan sartu behar. Izan ere, nahiz eta eraikin batentzat 30 urte asko ez izan, Jaxintok eta bere ikaskideek orain mende-laurden inguru lehenengoz zapaldu zuten eraikina zaharkituta geratu da. "Hau egin zenean, bizkorregi eta aurrekontu txikiarekin egin zen. 1968an hasi zen eta 1972an bukatu, baina handiegia zen eta diseinu aldetik txarra. Halere, hor bizi behar izan dugu azkenengo 25 urteetan, baina jende asko dago. 1.500 lagunendako pentsatu zen eraikina eta une honetan 6.000 inguru dabilta hemen egunerok; eta 150/200 irakaslerendako tokia egonik une honetan 400 izango gara. Premiazkoa dugu eraikin berria". Iragana, egungo egoera... eta kontzeptu bi horiekin zerikusi es-tua duen beste bat, fakultatearen eragina, izan badu, gizartean izan duen isla. "Orain 30 urte Deustuko Unibertsitatea, Sarririkoa eta Injineru Eskola zen Bilboko irakaskuntza-unibertsitarioren sorta. 1968tik hona, eragin soziala izugarria izan da, nahiz eta orduan ez egon bate-re garbi zertarako zen ere. Medikuntza Fakultatea garbi dago medikuak sortzeko zela, baina Zientzi Fakultatea zertarako behar da? Zertarako behar dira fisikariak eta matematikariak? Horrelako gauzak galdetzen ziren orduan. Gero ikusi izan da bidertu egin dela titulatu- presentzia gizartean. Apustu bat

Jaxinto Iturbe

Bilbotarra. Euskal Herriko Unibertsitatea sortu zen urtean amaitu zuen batxilergoa. 1968an Fakultate berrian sartu eta 1973an bukatu zituen ikasketak. Lehen promozioa beraz. Soldaduskan egon eta gero tesina egin zuen eta irakasle-laguntzaile moduan bueltatu zen Leioara. Estatu Batuetan bi urte igaro zituen ikertzen, eta harrez gero Leioan dago. 1986tik 1990era Euskararako Errektoreorde izan zen.



B. Kortabarría

izan zen une hartan, gutxiengo bategi horretan sinestu zuen, eta gaur errotuta dago gizartean. Hemendik irteten diren fisikariak, matematikariak, kimikariak, geologoak eta biologoak indar itzela dute gaurko gizartean". Denbora honetan, Josebak zein Jaxintok, irakasle soil moduan egin dute lan, baina karguak ere izan dituzte. Lan batean edo bestean aritzeaz dagoen aldea azpimarratzen dute. "Ezin dira konparatu, desberdinak dira. Irakasle moduan harreman handiagoa izaten da jendearekin, ikasleekin etab.; al-diz, dekanok edo errektore bezala ar-durek agintzen dute. Irakasle-lana betegarriagoa da, baina gauzak datozen moduan hartu behar izaten dira askotan". Azaletik bada ere, eta karguak aipatzen hasita, Fakultate bateko historiaz hitz egiterakoan, ezin bazterrean utzi Unibertsitatean hain errotuta dauden jerarkia kontuak. "Fakultatea sortu zenean katedratiko bat edo bi besterik ez zeuden, eta haiek bazuten lege unibertsitarioak ematen zien indar guztia. Denborarekin aurrera egin da, legeak aldatu egin dira, gauzak erraztu egin dira eta bidea zabalagoa da, katedratiko

gehiago dago. Orain, norbaitek duela 25 urteko filosofiarekin funtzionatzen badu, pentsatuz bera Jainkoa dela, albora begiratzen du eta beste katedratiko batzuk ikusten ditu, eta ezin du Jainko sentitu. Egitura jerarkiko hori hor dago, baina jerarkia horretan aldaketa sakonak egon dira". Gizartean aldeak, Fakultatean, eraikinean... lehen promozioa irten zenetik. Eurak ere, lehen promozioak, denboraren poderioz, aldatu egin dira. Euren arteko harremanetan, berriz, ez hainbestekorik Jaxintok dioenez. "Promozioarekin badut bai harremanik, ez horrela lotura handirik baina bai, egoten gara batzuetan, eta orain, ospakizunak direla eta, aukera gehiago izan dugu elkarrekin egoteko. Ikasle ohiekin? Egia esan, ez ditut izandako ikasle guztiak gogoratzen; oraino, klasera etortzen direnak bai, jakina. Nonbait izenen bat irakurri eta gogora etortzen zait, bai nik ikasle hau eduki dut, baina aurpegia eta izena elkartzea zaila egiten zait. 23 urte hauetan, batez beste, 40 ikasle inguru izan ditut urtero; batzuk behin baino gehiagotan, ez gustuz, baina bai komentzitura.

Hoberantz egin duen Fakultateak? Bidean ondo goaz, ikerkuntzan, irakaskuntzan eta harreman pertsonaletan. Une txarrak ere egon dira. Latzena, behar bada, bost titulazio izanik Fakultatea zatitu eta bost fakultate sortzeko eztabaida egon zenekoa. Ez zen egin eta kitto. Garapenaren une txarrak izan ziren".



B. Kortabarría

JOSEBA MADARIAGA
Areatzakoa. Zaragozan ikasi zuen, tesia han egin eta irakasten ere bertan hasi zen. Euskal Herriko Unibertsitatean etorri zen Zientzi Fakultatean lanean hasteko. Hainbat urtez dekanok kargua bete zuen eta errektoreorde ere izan zen. Fisikaria da eta 58 urte ditu.



Miren Onaindia:

Euskara zabaltzeko asmoa benetakoa da

B. Kortabarria

Miren Onaindiak 15 urte daramatza irakasle-lanetan Zientzi Fakultatean. Ikasketak eta doktoradutza-tesia ere bertan egin zituen, nahiz eta Madrildik zuzendu zioten; "orduan zaila zen zuzenduko zuen norbait aurkitzea hemen". Biologoa da Miren eta fakultatean ekologiako irakaslea, hasieran gazteleraz ematen zituen baina orain euskaraz. Pasa den urtetik Euskararako Dekanordea da.



25 urte

Zer suposatzen du Euskararako Dekanordea izateak?

Euskararen inguruko ekintza guztiak zuzendu edo koordinatu behar ditudala esan nahi du, bai irakasle berriak eskatzerakoan euskara bultzatzeko zein plaza beharko lirakekeen, batez ere lehenetasunak urtetik urtera, eta gero orokorrean egoera nola dagoen ikustea.

Eta hori zer da, debozioz edo halabeharrez hartutako kargua?

Bietatik apur bat. Dekanoa Fakultatearen Batzarrean hautatzen da. Dekanoak bere proposamena aurkeztearekin batera, bere programa eta taldea ere aurkezten ditu, izen eta pertsona jakin batzuekin osatuta. Berak proposatu ninduen Dekanorderako eta nik onartu egin nuen, pentsatuz gauzak egin ahal izateko egoera onean geundela.

Nolakoa da zientzia/euskara harremana?

Gaur egun errealitatea da. Aurtan hain zuzen ere, Fakultateak,

25. urteurrenaren gain, beste ospakizun garrantzitsu bat ere badu, aurtan ateratzen baita biologoen lehen euskal promozioa. Biologian Ekosistemak espezialitatea dago eta orain ateratzen den ikasle-talde horrek ikasturte guztiak euskaraz egin ditu, ikasgai guztiak euskaraz lantzeko aukera izan du, derrigorrezko zein aukerako ikasgaiak.

Hori ere azpimarratzekoa dela iruditzen zait. Urteurrena garrantzitsua da, baina zentzu berean, euskarazko ikasleen lehen promozioaren irteera ospatu egin behar litzateke. Maiatzean ikasleek beraiek burutu zituzten ekintza batzuk: mahaingurua, bazkaria bertsolariekin, etab. Fakultatearen aldetik ere egin nahi da zerbait eta datorren urtean, Alberto Magno-

ren jaietan, aipamen berezia egingo zaie hauei, ikasketak euskaraz egin dituztenei.

Gainerako espezialitateetan ez da hainbeste aurreratu ikasle-kopurua ez delako hain handia izan. Dena den, aurrera begira jarriz gero, gure Fakultatean karrera guztietako lehen zikloa, derrigorrezkoa, euskaraz egin ahal izango da. Derrigorrezkoak denak beteiko dira; eta aukerakoak ezingo ditugu bete, arazo berri bat dugulako. Lizentziatura batzuetan plan berriak hasi dira eta beste batzuetan oraindik hasteko daude, eta ez dakigu noiz hasiko diren. Esate batera, fisikan, kimikan eta geologian ez daude jarrita plan berriak, baina epe laburrean jarriko dira. Zer gertatzen da plan berri horiekin? Ikasgai asko aukerakoak dire-

la. Aukerakoak direnez, asko dau-de... ikasgai askorekin lan egiteak zaildu egiten du planifikazioa eta irakasleak aurkitzea. Horregatik esaten dut derrigorrezkoak guz-tiak egongo direla euskaraz lehenengo zikloan. Bigarren zikloan, berriz, biologian ondo gaude; bio-kimikan, berria denez, oso gauza gutxi dago euskaraz. Bigarren ziklo honetan, datorren ikasturteari begira, kimikan laugarren urtean euskarazko talde bat jartzea espero dugu, horretarako eskatuta dauzkagu plazak. Fisikan etorkizunean, elektronikara espezialitatea, ikasle-kopuru handiena duena, jartzea ere espero dugu, eta berdin matematikan. Geologian, esate baterako, ikasle-kopurua askoz ere txikiagoa da eta lehenengo artean ez dugu izango, baina aurreratuko dugu eta gure helburua ikasleei karrera osoa euskaraz egiteko aukera eskaintzea litzateke. Bi urte barru egoera horretan egongo garela espero dut.

Irakaskuntza hori kalitatezkoa da?

Nire ustez bai. Eskaintzen den kalitatea parekoa da hizkuntza batean zein bestean. Eskolak ematen hasteko, alde batetik euskarako azterketa gainditu behar da; bestetik, *curriculum* aldetik eskakizun bera dago.

Esaten duzunagatik, ikusten da euskarak Fakultatean poliki-poliki egin duela aurrera. Aurrera egite hori beti gertatu izan da? Uneren batean bultzada bereziren bat jaso du?

Ez daukat daturik baina nire ustez azken bost/zazpi urteotan bultzada oso handia izan da. Fakultatean sartu nintzenean ematen ziren lehenengo ikasturteak euskaraz, baina ez gehiago. Orain, biologoek dena euskaraz egiteko aukera izatea gauza aipagarria da. Beharbada askorentzat denbora gehiegi pasatu behar izan du horrelako zerbitu gertatu bitartean. Ez dakit denbora asko edo gutxi

izan den, baina gauza batzuk lortu egin dira.

Aurrera egin behar hori, nondik dator? ikasleen eskakizuna? gizartearen isla?

Denetik apur bat. Batetik ikasleen eskaera hor dago; bestetik Fakultatean bertan egon izan dira pertsona jakin batzuk euskararen alde lan egiten. Fakultate honetan, nik ezagutzen dudanez, UEUren inguruan mugitu izan den jendeak asko lagundu du euskararen egoera normaldu zedin, horiek bultzatuta asko lortu da.

Bestalde, argi dago Unibertsitateko agintariak ere ezin zutela kontrako indarrak egin, gizartearen eskakizuna egon badagoelako.

Agintarien kontua dela eta, orain gutxi pankarta aterazuen ikasle-talde batek: "Euskal adarra, adar jotzea?" jartzen zuten.

Ez dut uste Salabururen azalpenak behar bezala ulertu zirenik. Nire ustez Errektoretzan Unibertsitatean euskara zabaltzeko benetako asmoa dago, eta horren alde lan egiten ari dira. Beharbada iritzi desberdinak egon daitezke lehenengo jartzerakoan, baina nik neuk ez dut zalantza jartzen Unibertsitateko agintariak euskara bultzatu nahi dutenik eta horri begira gogor ari direnik lanean.

Beste aldetik begiratuta, normala da ikasleek gehiago eskatzea eta, gainera, ondo ikusten dut; hala ere, gauzak ezin direla bere onetik ateratu iruditzen zait.

Gaztelaniaz egin zenituen ikasketak, eskolak ematen ere gaztelaraz hasi zinen eta orain euskaraz ematen dituzu. Erraz aldatzen da?

Ez, kosta egiten da, batez ere terminologia oso zehatz erabili behar delako. Hasieran zalantza ugari genituen, terminologia zuzena finkatu arte zail egiten zen. Bibliografia edo testuliburugintzatik laguntza gutxi, guk erabiltzen ditugun

gehiak ingelesez baitaude. Ingeleseztatik ikasitakoa euskaraz nola erabili erabakitzea ez da erraza izaten.

Bide asko egin da, baina gehiago landu beharra dago. Beharbada Euskarazko Institutuaren eginbeharretako bat hori izan daiteke: terminologia zientifikoa finkatzea eta irizpide zehatzak ematea.

Gaur egun baduzue laguntzarik bide horretan?

UZEIk egindako lana oso baliagarria izan da, Elhuyarrek ere bai, gutxienez badugulako irakur dezakegun zerbitu. Unibertsitateak berak ere ateratzen du orain aldizkari bat, *Ekaia*, eta hor erreferentzia bat dago bai ikasleentzat eta baita irakasleentzat ere. Gainerakoan, esandakoa, nik uste Euskarazko Institutuak izan dezakeela hor lan egiteko gaia.

Euskararen ikuspuntutik, zer eskaini dio Fakultateak gizarteari?

Euskara zientifikoa errealitate bihurtzea. Hori oso garrantzitsua da, zeren eta une honetan tesiak euskaraz idazten baitira, tesinak idazten dira euskaraz eta ondorio zientifikoak ere bai. Gero zer gertatzen da? ba ikerketen emaitzak munduan zehar zabaltzeko, ingelesez idazten direla artikuluak. Horrek ez du esan nahi, dena den, ez dagoela aukera bat euskaraz idazteko ere.

Euskararako dekanorde zaren aldetik, nola ikusten duzu etorkizuna?

Ez dut uste atzera joango garenik, eta uste dut hartu dugun bidetik gero eta zuzenago joango garela. Gero eta jende gehiago dago komentzitatea hortaz, beraz aurrerapausuak egingo ditugu. Gero, hor aurkituko dugu betiko arazoa, administratibotik iritsiko zaizkigun baliabideak. Barruko egitura ego-kia da euskarak aurrera egin dezan.





Zientzi Fakultateko aurtengo bi ospakizunak

Juan Ignacio Perez Iglesias

Aurten Zientzi Fakultateko lehen promozioaren irteeraren 25. urteurrena ospatzen ari gara. Ni, hamargarren promozioiko ikaslea naiz; beraz, gure Fakultatearen historiaren bigarren aldia baizik ez dut ezagutu, aurreko urteetakoaren berri nire irakasle eta lankideek eman didatelarik. Nire promozioarekin eta ondorengoekin batera masifikazioa heldu zen Unibertsitatera eta, jakina, horren eragina pairatu behar izan dugu, bai ikasle modura eta bai, geroago, irakasle modura ere. Baina beste gauza batzuk ere heldu ziren garai hartan. Adibidez, Eusko Jaurlaritzak hasi zen Doktorego Tesiak egiteko dirulaguntzak ematen. Horretarako ezarritako programari esker, askok egin ahal izan genuen tesia. Aurreko urteetako promozioetakoek baino gehiagok, zalantzarik gabe. Bestalde, garai hartatik hona, ikerkuntzarako dirulaguntzak modu ikaragarrian hazi dira eta Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta EHUK berak ere garrantzi handiko baliabideak gure eskuetan ipini dituzte. Ahalegin horien eragina begibistakoa da. Fakultateko zientzia-maila altua da; hala adierazten dute gehien erabiltzen diren zientzi indikatzaileek. Finantziario iturriak ugaltu dira, maila altuko nazioarteko aldizkarietan argitaratzen diren

lanak geroz eta gehiago dira eta beste herrietako ikerkuntza-taldeekiko harremanak sendotu eta anizkoiztu egin dira modu esangarrian.

Hori guztia horrela izanda, gauzak ezinhobeto doazela ondoriozta genezake. Eta egia esateko, nire ikuspuntua nahikoa baikorra da, baina ez horrenbesteko. Orain dela hamabost urte zegoen Fakultatea ezagutu dugunontzat, urte hauetan gertaturikoa adorea emateko eta pozik egoteko modukoa izan bada, orainak baditu bere alde eskasak. Nire iritziz, ikerkuntza eta zientzia-maila bultzatzeko ahalegin handiak egin badira ere, ezer gutxi egin da irakaskuntzaren kalitatean pareko bilakaera izateko. Egia da ikerkuntza-mailaren gorapenarekin batera irakaskuntzarena igo egin dela seguruenik; azken batean, Unibertsitateko irakaslearen ezaugarri nagusietariko bat ikerkuntza eta irakaskuntza jardueren arteko harreman estua da. Baina alor honetan badago gehiago egiterik. Instituzioek eta Unibertsitateak berak ere, ez dute orain arte benetako apusturik egin irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko eta egindako gehiena irakasle bakoitzaren gogoia eta borondatearen menpekota izan da. Eta Unibertsitatearen helburu nagusia zein den ez dugu ahaztu behar. Gizartearentzat

Zientzi Fakultatea hurrengo 25 urteei begira

Gauza ugarirako aitzakia eman dezake mende-laurdeneko ibilbideak. Dagoen tokian egoteagatik, zenbakien munduan mugitzea egokitzen zaio Manuel Tellori, gaur egun Leioako Zientzi Fakultateko dekanoa denari. Iraganeko kontu batzuez, gaur egungoez, eta batez ere, etorkizuneko luzetako hitz egin dugu berarekin.

Bigarren aldiz dago Manuel Tello Leioako Zientzi Fakultatearen Dekanotzan. Fakultatea bikain ikusten du. "Fakultatea oso ondo dago. 25 urteotan, beno 30 egiazki, hazkunde kualitatibo harrigarria izan du. Horregatik nago ni hemen, horrek animatu nau hemen egotera, ondorengo 25 urteei begirako planteamendua egiteko helburuak. Lehen 25 urteen barruan ibiltzea ego-




goi-mailako trebatzea izango duten langileak hezitzea da gure zeregin nagusia. Horixe da gizarteak eskatzen diguna eta beste guztiak, horren zerbitzurako egon beharko luke. Esparru gehienetan bezala, horretarako ezinbestekoa da baliabide egokiak erabiltzea eta baliabide horiek anizkoitzak izan behar badute ere, ekonomia baliabideak behar-beharrezkoak dira.

Nire ustez, beraz, etorkizunerako zeregin nagusietako bat horixe da eta horrek baditu alde batzuk, elkarren artean osagarriak. Horrela, irakasleen birziklapen iraunkorrerako programak behar dira. Oso baliogarria izango litzateke, bestalde, tutoretza-sistema eraginkorragoak ezartzea eta tutoretza-lana behar bezala baloratzea eta saritzea. Irakaskuntza-azpiegiturarako finantziatio-iturri espezifikoak ezarri beharko liriateke. Teknologia aurrera doan neurrian, lan-munduan egongo diren baliabide eta azpiegiturak berriztatuz doaz etengabe. Irakaskuntza-azpiegiturak, beraz, antzeko moduan berriztatu beharko liriateke. Seguruenik, gauza gehiago egin liteke alor honetan, adibidez, nik aipatutakoak.

Bestalde, eta aurrekoarekin harreman estuan, Titulazio berrien ezarpena dugu etorkizun hurbilerako zeregin nagusietariko bat. Irakaskuntza-eskaintza ezin egon daiteke izoztuta urteetan zehar; gizartearen beharrak berriak badira eta Unibertsitatean zientzia eremu berrietarako bideak ireki badira, gure erantzukizuna da behar berri horiei erantzuna ematea. Joan den udaberrian Titulazioen Mapa berria onartu du EHUKo Gobernu Batzarrak. Bertan, Unibertsitateak proposamen bat egin du, etorkizun hurbilean eskain ditzakeen titulazio berriak zehaztuz. Mapa horretan sartutako titulazio batzuk, Zientzi Fakultatean eskaini ahal izango dira. Horren aurrean sekulako erantzukizuna dugu eta egiten dugun irakaskuntza-eskaintzaren kalitatearen menpean egongo da bai gure etorkizuna eta, garrantzi handiagokoa dena, bai Unibertsitatean etortzen diren gazte askorena ere.

Horiexek dira, beraz, etorkizunari begira ditugun erronkak. Ikerkuntza-jarduerak sendo eta egonkorak izanik ere, espero

izatekoa da aurrerantzean hobetuz joango garela. Horretan oinarrituta, irakaskuntzaren kalitatearen emendioa izan behar dugu helburu. Esan dudan moduan, Instituzioei dagokie horretarako ipini behar diren baliabideak eskaintzea, baina gure arteko bakoitzak ere badu bere zeregina. Kontuan har dezagun.

Lerro hauek eskatu bazaizkit, Zientzi Fakultateko kidea naizelako eta horretaz gainera, Euskara Errektoreordea naizelako izan dela uste dut. Beraz, Fakultatean euskarazko irakaskuntzak izan duen bilakaera eta etorkizunari begira honen inguruan egin daitezkeen ikuskizunak aipatu gura nituzke hemen. Zientzi Fakultatea aitzindaria izan zen alor honetan. Bertan hasi ziren, laurogeigarreneko hamarkadan lehenengo eskolak euskaraz ematen Unibertsitatean. Hori, irakasle bakan batzuen lana eta borondatearen emaitza izan zen hasiera batean. Geroago, euskarazko eskaintza handitu eta zabaldu egin da. Ikasketa batzuetan besteetan baino gehiago, baina kasik urtero gehitu ahal izan dugu eskaintza hori. Ez gara oraindik heldu iritsi behar dugun tokira, baina oraindik urratzeko dugun bidea egindakoa baino laburragoa da. Adibidez, Biologia ikasketak euskaraz osoki egin ahal izan dituen lehen promozioa irten da aurten. Hori ere ospatu dugu eta nire iritziz, beste ospakizuna baino askoz ere esangarriagoa eta garrantzikoagoa izan da hau. Lehendabiziz, zientzia alorrean, goi-mailako ikasketak euskaraz egin ahal izan dira. Datozen urteotan Fakultateko beste ikasketak euskaraz egin ahal izango dira osorik, batzuk besteak baino lehenago. Bide beretik jarraituko dugu beraz eta orain arte egindakoa hobetzeko asmoz, Unibertsitate-mailako irakaskuntzarako baliabide egokiak izateko behar diren ahalegin guztiak egingo ditugu. Lehen esan dudan bezala, erantzukizuna ezin da bakarrik instituzionala izan. Bakoitzari geurea dagokigu eta esparru honetan, zientzia-alorreko euskararen normalizazioarenean, lan handia dago egiteke. Horra hor, beraz, bigarren erronka datozen urteetarako. 

kitu zait; orain aurrera begira dauden lehentasunak markatu ditugu eta ondorengo 25 urteak prestatzen ari gara".

Dagoeneko ondorengo 25 urteetako bidearen zati handi bat egina dute Zientzi Fakultatean, hasierakoa, norabidea markatuko duten erabakiak hartu behar diren hori. Eraikinari dagozkie hartu diren lehenak. "Fakultatea, berez, 1.500 ikaslerentzat eta 150 irakaslerentzat prestatuta zegoen. Gaur egun 5.500 ikasle ditugu lehen eta bigarren zikloetan, 300 hirugarren zikloan, eta 360 irakasle. Tokiaren auzia aztertu beharra genuen lehentasunen artean. Gainera, denborarekin Fakultatea hondatuz joan da".

Eraikin berria

Esandakoagatik sortu da Zientzi Fakultatean eraikin-proiektua. "Lana irailean hasiko da. Noiz bukatuko den? Zaila da esatea, fakultateko eguneroko eginbeharrarekin batera eraman behar delako aurrera. Izan ere, obra, eskolak eta ikerketa-lana aldi berean egin behar ditugu, eta

Eskuar tean duten proiektuaren arabera, Zientzi Fakultatearen etorkizuneko eraikinean bereizketa egingo dute, alde batean ikerketa-sailak eta hirugarren zikloa jarriko dituzte; bestean lehen bi zikloetako gelak.

B. Kortabarria



B. Kortabarría



Manuel Tello, Galiziako Corcubionen 1944. urtean jaioa, 1969. urtean iritsi zen Leioako Zientzi Fakultatera. Fisikako ikasketak Madrilen egin zituen eta hona Estatu Batuetatik bueltan etorri zen, aurrez Suitzako Unibertsitate Politeknikoan eta Ingalaterrako Oxford-en izan zelarik. Euskal Herriko Unibertsitatean "Física de Folones y transiciones de fase en cristales" laborategiaz arduratzen da, dagoeneko 50 doktoretza-tesi eman dituen laborategia. Tesiez gain, 10 katedradun eta 20 irakasle titular ere irten dira Manuel Telloren laborategitik. Galiziarrek pertsonalki 130 artikulua inguru argitaratu ditu, ikerketa-artikuluak gehienak nahiz eta dibulgazio-mailakoak ere argitaratu dituen. Egunkarietan idatzi izan du, aldizkari ugarietan eta telebistan lan egin du. Azken lau urteak Leioako Zientzi Fakultateko Dekanotzan igaro ditu.

hori ez da erraza. Aurreikuspenen arabera, eskola-ordurik ez da galduko, eta ikerketa-lanetan apur bat baino ez da galduko".

Eskuartean duten proiektuaren arabera, Zientzi Fakultatearen etorkizuneko eraikinean bereizketa egingo dute, alde batean ikerketa-sailak eta hirugarren zikloa jarriko dituzte; bestean lehen bi zikloetako gelak. 40.000 metro karratu ditu oraingo eraikinak eta 55.000 izango ditu berriak. "Daukagun jende-kopurua kontuan hartuta ezin genezake esan toki gehiegi denik, baina dugun diruarekin hori baino gehiago ezin dezakegu egin. Lana garestia da, ikerketa-lanari begira egokituko diren lokalak eskakizun handikoak direlako, 4.000 milioi pezeta inguru gehi azpiegiturretan beharko dena.

Lana egin eta gero eraikin polita geratuko zaigula uste dut, beste 25 urteetan ukitu beharrik ere izango ez dena. Barne-aldaketarik beharko bultz, ahalik eta merkeago egin ahal izango ditugu, jarri dugun sistemari esker, edozein lokal egokitzeko ez baita obra beharrik izango. Ikerketa-lanerako lokalak mugitzeko modukoak dira, txikitzeko edo handitzeko modukoak".

2002. urteko irailean bukatuko dira Leioako Zientzi Fakultateko obra kontuak. Garrantzitsua iza-


nagatik, ez da, azpiegitura ondorengo 25 urteetan aldatuko den bakarra, irakaskuntzan ere aldaketak iragartzen baitira.

Programazio berria

Ondorengo lerroetan iragarriko diren aldaketak galdera zehatz bati emandako erantzunaren ondorio dira: Zein paper jokatu behar du Fakultateak Euskal Herriko garapen ekonomikoan? "Printzipioz gai klabe bat dago, baliabide pertsonalen sorkuntza, Euskal Herriko beharrei erantzungo dien jendea hezitzea. Zientzia eta teknologia egunetik egunera gertuago daude. Arlo produktiboak, lehiakorra izateko, zientziarengandik gertu egon beharra dauka. Ondorioz, zientziak, benetan erabilgarria izatea nahi bada, aplikatzeko modukoa izan behar du".

Hortik dator Zientzi Fakultateko ikasketa-planaren aldaketa. Plan berriak dioenez, orain arteko bost lizentziatura klasikoak, —matematika, fisika, kimika, geologia eta biologiari—, berriak erantsiko zaizkie, gizarteak gaur egun eskatzen duenetik gertuago egongo direnak. "Ez hori bakarrik, gizarteak oraindik sentitzen eta eskatzen ez dituen beharrei, baina etorkizunetan izan ditzakeenei erantzungo dien lizentziaturetan ere pentsatu dugu. Eskaintza berri bat prestatu dugu, gaur egungo irakasleetan eta beren gaitasunean oinarritua. Eskaintzaren kalitatea ziurtatuta dago alde horretatik, irakasleak jantziak eta esperimentziadunak baitira.

Planteamendua dinamikoagoa da, guztientzako oinarritzako formazioa dagoelako —bakoitzak bere espezialitatean— eta gero 3. ikasturtetik aurrera dibertsifikatu egiten delako. Sistema berriak abantaila ugari dauzka. Hasteko, ikasleek ez dute lehen ikasturtetik aukeratu beharko orain bezala eta aldatu ahal izango dute. Gero, arlo produktiboan dauden profesionalak azkar birziklatzea ahalbidetzen du, espezializazioan oinarritzen direnez, edozein pertsona denbora laburrean erreziklatzeko aukera izango duelako. Hiruga-



rrer ondorio bat ere badu sistema honek, geure baliabideak optimizatu eta eskaintza merkeagoa egiteko moduan jartzen garelako. Bestalde, gerta dakiguke titulazioen batek eskakizunik ez jasotzea, eta aldatzea ez litzateke zaila izango, bakarrik bi ikasturte aldatu beharko genituzkeelako. Azkenik, irakasleen ikerketak bideratu ahal izango genituzke titulazio berriak aurkitze aldera”.

Hizkuntza-proiektuak

Leioako Zientzi Fakultatearen hurrengo 25 urteei begira, eraikin berriarekin eta ikasketa-plan berriarekin batera, ikasketetako hizkuntzetan eman nahi diren urratsak berebiziko garrantzia dute. Zientzi Fakultateari buruzko lan honen beste atal batean, zabalago hitz egiten da euskararekiko erakunde honetan dauden asmoez. Dekanoak berak, esaldi batean laburbiltzen du. “Dagoen eskakizunaren arabera normalizaziora iritsi nahi genuke, ondorengo hiru urteetan dagoen eskakizunari aurre egin”. Euskarazko eta gaztelaniazko eskaintzarekin batera, ingelesarena ere egin nahi du Zientzi Fakultateak. “Kanpoko unibertsitateekin

akordioak lortu nahi ditugu, ikasle guztiak aukera izan dezaten gutxienez urtebete pasatzeko beste unibertsitateen batean. Estatuko unibertsitateekin akordiora iritsi nahi dugu, baliozkotze eta espedientea aldatzeko prozesu barik ikasleen joan-etorria benetakoa izan dadin. Horretarako Estatuko fakultateetako dekanok guztiak elkartuko gara. Atzerriko unibertsitateekin ere nahi dugu zerbait egin. Gure fakultatea, irakaskuntzaren kalitateari dagokionez, Europako toki onetan kokatuta dago; hau da, gure fakultateak irte-ten diren ikasleak ondo jantzita irte-

ten direla badakite Europa mailan. Bide horretan aurrera egin nahi dugu eta ingelesezko eskaintza egin, irakasle nahikoa badugu horretarako eta ikasleak ere ados daude, kontsulta egin eta %70 ados agertu baitzen”. Asmoa gauzatuko balitz, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Euskal Herria modernizatzeko aukera paregabekoa litzatekeela dio Manuel Tellok, Erasmus bezalako programetan ez lukeela arazorik sortuko eta, gainera, Europako fakultate gehienekin harremanak areagotzeko eta estutzeko aukera emango lukeela.



LEIOAKO ZIENTZI FAKULTATEKO DATUAK

- 450 nazioarteko argitalpenetik gora urtero.
- 1997. urtean 165 ikerketa-proiektu, guztira 1.168 milioiko aurrekontuarekin.
- 92-93 epean 42 doktore-tesi, unibertsitate osoan 223.
- 93-94 epean 35 doktore-tesi, unibertsitate osoan 177.
- Unibertsitate osoko argitalpenen % 42.
- Unibertsitate osoko ikerketa-proiektuen % 39.
- Unibertsitate osoko unibertsitate/enpresa kontratuen % 33.
- 360 irakasle (56 euskaraz).
- 250 ikertzaile.
- 5.500 ikasle gaur egun, 79 taldetan banatuta (17 euskarazkoak).
- 46 ikasgela.
- Guztira 8.500 lizenziatu, azken ikasturtean 520.



B. Kortabarria



Arazoa helburuetan dago

J. R. Etxebarria
UEUko kidea

Urrun geratu dira zientzia euskaraz egin ote zitekeen eztabaidatzen zeneko garaiak. Gaur egun, gure lurretan bizi diren eta lan egiten duten unibertsitario antieuskaldunik itsuenak ere ez dira ausartzen antzekorik esatera, beren buruak ezjakintzat hartzea gura ez badute behintzat. Baina horrek ez du esan nahi pertsona horiek euskarazko unibertsitaterik sortzeko bidea errazteko prest daudenik. Oso alderantziz, orain jarriko dituzten —aspaldi hasita jartzen ari diren— oztopoak burutsuago eta sutilagoak izango dira, ez ordea eraginkortasun txikiagokoak, zeren, erabilitako diskurtsoak leunagoak izanda ere, oztopo horiek gainditu ezean —euskarazko unibertsitatea eraiki nahi dugun euskaldunok— ia konturatu barik geure helburuak aldatzera eramán baikaitzateke. Eta, ene ustez, benetako arazoa helburuetan dago.

Oraindik ere euskara UPV/EHUren maila guztietan erabiltzeko prozesua amaitu barik dagoela —eskubide hori 1985ean onartutako estatutuetan aitortu zitzaigun—, orain unibertsitatean euskaldunoi planteatu nahi dizkiguten galderak, ez delakoan ere, euskalduntze osoko helburua desbideratzeko modukoak dira: Ikerkuntza euskaraz burutzea onuragarria al da? Ikerkuntzaren emaitzak euskaraz argitaratu behar al dira, ala ingelesez egitea ez al da eraginkorragoa? Ikasketak burutzeko elebitasuna kartara eskainiko al dugu? Mota horretakoak planteatzen dizkigute, bitartean euskal adarrak garatu gabe daudela eta garatzeko asmo handirik ikusten ez dela ahantzarazi nahirik. Azal gogorra behar da, gero!

Zientzi Fakultatearen bilakaeraz ari naiz. Fakultate hori ezerezetik sortu zen orain dela hogeita hamar urte, eta sail desberdinetako

promozioak kalean daudela —gaztelania ederrean formaturikoak, noski— 25 urte bete dira aurton. Errealitate hori nola gauzatu den analizatu gabe, ordea, batzuek sinestarazi egin nahi digute fakultateko ikasketa-prozesu osoa euskaraz burutzea oraindik ere ezinezkoa dela. Izan gaitezen serioak... eta zintzoak ere, gehiegi eskatzea ez bada.

Zientzi Fakultateko nolabaiteko euskalduntze-prozesua —hasiera batean erdi ofiziala eta erdi estraofiziala izan zena— duela hogeita urte abiatu zen, euskal adarra orduan sortu baitzen, nolabait esateko. Hogeita urte igaro ondoren, aurten bada promozio bat, Biologiako ikasketa guztiak euskaraz burutu dituen. Zorionak! diot pozez, alde batetik; baina bestetik, hogeita urtetan soilik hori nola lortu den galdetzen diot neure buruari. Zoritxarrez, erantzun garbia datorkit: behetik —euskal adarreko ikasleek eta irakasle euskaltzale batzuek— sortutako ekimenaren helburuak unibertsitatearen agintaritzan daudenek bereganatu ez dituztelako eta bidean etengabeko oztopoak izan direlako gertatu da hori. Izan ere, garbi hitz eginda, benetako gakoa horretan dago: Unibertsitateko/Fakultateko agintariak ez dute lehentasunezko helburu garrantzitsu modura hartu euskarazko irakaskuntza —eta bizitza—, borondate onez aritu diren pertsona batzuen salbuespena gorabehera. Eta agintarien borondatezko ukazio hori estaltzeko, argudio “objektiboak” aipatu izan dituzte orain arte; eta gaur egun ere erabiltzen dituzte sarri. Aipa ditzagun horrelako batzuk.

Zientzia da batzuen ustez Zientzi Fakultatearen helburu behinena: *kalitate* handiko *zientzia*, beren hitzetan. Horra hor bi gako-hitz, euskararen plangintzak aurrera eramateko orduan oztopo bailiran plazaratu ohi direnak. Dena den, bidenabar



diogun ezen irakasgai berria gaztelaniazkoa denean, planteatu ere egiten ez direla... orduan kalitatezko zientziaren kontu hori esan gabe baitoa. Edonola ere, guk ondo baino hobeto dakigu ezen, azken hogeitau urte hauetan euskaraz plazaratu diren lanak —tesiak, artikulatuak...— eta euskaraz lan egin duten irakasle eta ikertzaileek beste hizkuntzetan —ingelesez gehienetan— argitaraturikoak, beren urritasunean, oso kalitate handikoak izan direla, fakultatean diharduten besteek argitaraturikoen maila berekoak bederen. Eta guretzat argi dago, zientzia eta kalitatea —eta zientzia kalitatez— lantzeko, eguneroko bizitzan zientzialariak darabilten hizkuntza euskara ere izan daitekeela; beste edozein hizkuntza den moduan. Horrela jokatu nahi izatea ala ez, eguneroko erabilpen hori helburutzat hartzea ala ez, hori beste kontu bat da. Hemen ardura digun arazoa, hain zuzen. Beraz, ez ditzagun gauzak nahastu, ez baitira nahasgarriak.

Jende prestua eta ongi prestua falta omen da. Kalitateari buruz esandakoak errepika daitezke hemen ere. Urte hauetan zenbat eta zenbat lizentziatu eta doktore ez ote diren fakultatek irten euskara ere bazekitenak, eta gaztelania besterik ez zekitenen mailakoak. Lizentziatu berri euskaldunak are gehiago prestatzeko plangintza gauzatzea ez da beste munduko gauza, oso egingarria baizik. Planifikazioa egitea erraza da, helburuak lortzeko erabaki sendoa dagoenean. Hemen ere lehentasunezko helburuak jartzea da garrantzitsua; baina ez dira jarri, eta ez dirudi jartzeko asmorik dagoenik.

Aurrekontuak eskasak omen dira. Berrito ere faltsutu egiten dira datuak etengabe. Izan ere, aipatzen diren aurrekontu bakarrak plan berrietara sartu beharko lirakekeen gehigarriak baitira. Bitartean gaztelaniazko irakaskuntzarako erabili behar direnak —betidanik erabiltzen direnak— inork ez ditu sekula aipatzen, baina horietatik dira unibertsitatearen aurrekontu arrunten ia guztia bereganatzen dutenak. Dena den, horiek ez dira inoiz zalantzan jarriko, zeren, helburuei dagokienez, gaztelaniazko zerbitzuak nahitaezkoak baitira, funtsezkoak, euskarazkoak ez bezala.

Argudio horiez gain, bestelakoak ere entzun daitezke: unibertsitatea bikoiztea astakeria litzatekeela — Lovainan horrelakorik egin dela jakin arren—, euskal adarrek behar litzuketen ikasgelak atontzeko lekuri ez dagoela, gizartearen barnean etena sor daitekeela,...

Nolanahi dela, behin eta berriz azpimarratu dudanez, ene ustez, arazoa ez da hainbeste argudioena, jarritako helburuena baizik. Benetan euskaraz arituko den unibertsitatea —gizartea, esango nuke nik— lehentasunezko helburu modura jartzen ez den bitartean, egin daitezkeen beste ahalegin guztiak ez dira aski izango. Ez diot alferrekoak izango direnik, gauzatzen den ahalegin alferrekorik ez dagoela uste baitut, baina arropa zaharrari adabakiak jartzearen antzekoa izango da; eta hemen, euskaldunok behar duguna ez da gerribuelta estaliko digun adabakidun arropa zaharra, gorputz osoa babestuko digun arropa berria baizik.

Euskararen Unibertsoaren jardunaldiak egitean argi eta garbi planteatu zen arazoaren muina, zer garen, zer bihurtu nahi gaituzten eta zer izan nahi dugun argitzeko bidean. Hango hitzak erabiliz, kontua hauxe da, alegia, *kategoria* izatera behartu gaituztela, *kategoria* izatea onar dezagun behartu nahi gaituztela, *kategoria* mailan eduki nahi gaituztela, *kategoria* bihurtu nahi gaituztela,... eta guk ordea, *unibertsoa* izan nahi dugula, *unibertsoa* izatea erabaki dugula. Euskaraz bizi nahi dugunok ez gara beste hizkuntza baten unibertsoak babesturik bizitzera eramanez nahi duten atal edo kategoria bat, mundu oso bat —txikia bada ere— eraikitzeko eskubidea duen unibertsoa baizik. Eta eskubideak gauzatzeak dira, edo ez dira. Horixe da gure helburua, gizarteko sail guztietara hedatu nahi duguna, unibertsitate-arloa ahanzi gabe, noski.

Gaur egun zientzi arloko unibertsitate-ikasketak euskaraz burutzea inoiz baino posibleagoa da, euskaraz bizi, lan egin, irakatsi eta ikertzeko gai diren zientzialariak asko dira, inoiz baino gehiago, euskarazko unibertsitateari iristeko inoizko gutxien falta da. Baina helburu hori garrantzitsua ez dela entzun diogu euskara ederto dakien zientzialari eta irakasle bati baino gehiagori. Helburura iritsi aurretik helburua baztertu nahi ez ote duten pentsatzera garamatza horrek. Horrexegatik argi eduki behar dugu euskalduntze-prozesua bururaino eramatea lehentasunezko helburu modura planteatu ezean, ez garela sekula iritsiko helburua gauzatzera. UPV/EHUko Zientzi Fakultatean Biologia saileko euskal adar bat osatu den uneon, baina aldi berean beste kimuak garatu aurretik zikritzeko arriskuan dauden momentuon plazaratu nahi izan ditut gogoeta hauek.

